Bestelako Xedapenak

INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

5487

EBAZPENA, 2008ko otsailaren 15ekoa, Ingurumen sailburuordearena, Arcelormittal Packaging España SLri ingurumeneko baimen bateratua ematen diona, Etxebarriko (Bizkaia) udalerrian burdinaren eta altzairuaren oinarrizko produktuak fabrika ditzan.

AURREKARIAK

2006ko maiatzaren 22an, Jenaro Ibarguchi Marín jaunak, Arcelormittal Packaging España SL enpresaren izenean eta ordezkaritzan, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari ingurumeneko baimen bateratua ematea eskatu zion, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak xedatutakoaren arabera, burdinaren eta altzairuaren oinarrizko produktuak fabrikatzeko jarduerarako, Etxebarriko (Bizkaia) udalerrian. Eskaerarekin batera dokumentazio tekniko hau aurkeztu zuen:

– «Ingurumeneko baimen bateratua eskatzeko oinarrizko proiektua. Arcelor Packaging España SL, Etxebarriko fabrika. Memoria» (2006ko maiatza).

– «Ingurumeneko baimen bateratua eskatzeko oinarrizko proiektua. Arcelor Packaging España SL, Etxebarriko fabrika. Laburpen ez-teknikoa» (2006ko maiatza).

Erreferentziako baimena eskatzeko unean, Arcelor Packaging España SL enpresak, besteak beste, jarduerarako 1997ko abuztuaren 4ko baimena zuen. Baimen hori burdinaren eta altzairuaren oinarrizko produktuak fabrikatzeko jarduerarako eman zen. Halaber, enpresa sustatzaileak baimen hauek zituen: hondakin arriskutsuen ekoizle-baimena, Ingurumen Sailburuordetzak 2001eko otsailaren 21eko eta maiatzaren 7ko ebazpenen bidez emana; eta hondakin ez-arriskutsuen ekoizlearen inskripzioa, hondakinen arloan indarrean den araudian xedatutakoari jarraiki. Enpresak bazuen atmosfera kutsa dezakeen instalazioaren ziurtagiria ere, 1999ko abenduaren 28koa, eta kolektorera isurtzeko baimena, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak jaulkitakoa.

2006ko ekainaren 2an, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak prozeduran esku-hartzea duten hainbat organori txostenak eskatu zizkion, inguru-

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

5487

RESOLUCIÓN de 15 de febrero de 2008, del Viceconsejero de Medio Ambiente, por la que se concede autorización ambiental integrada para la actividad de fabricación de productos básicos del hierro y del acero promovida por Arcelormittal Packaging España, S.L, en el término municipal de Etxebarri (Bizkaia).

ANTECEDENTES DE HECHO

Con fecha 22 de mayo de 2006, D. Jenaro Ibarguchi Marín, en nombre y representación de Arcelor Packaging España, S.L. solicitó ante el Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco el otorgamiento de autorización ambiental integrada de conformidad con lo dispuesto en la Ley 16/2002, de 1 de julio, de prevención y control integrados de la contaminación, para la actividad de fabricación de productos básicos del hierro y del acero, en el municipio de Etxebarri (Bizkaia). La solicitud se acompañaba de la siguiente documentación técnica:

– Proyecto básico de Solicitud de Autorización Ambiental Integrada. Arcelor Packaging España, S.L., Fábrica de Etxebarri. Memoria (mayo 2006).

– Proyecto básico de Solicitud de Autorización Ambiental Integrada. Arcelor Packaging España, S.L., Fábrica de Etxebarri. Resumen no técnico (mayo 2006).

En el momento de la solicitud de la autorización de referencia, Arcelor Packaging España, S.L., tenía, entre otras, licencia de actividad, de fecha 4 de agosto de 1997, para la actividad de fabricación de productos básicos del hierro y del acero. Asimismo, la empresa promotora disponía de la correspondiente autorización de productor de residuos peligrosos concedida mediante Resoluciones de la Viceconsejería de Medio Ambiente de 21 de febrero y 7 de mayo de 2001 así como de su inscripción como productor de residuos no peligrosos de conformidad con lo dispuesto en la normativa vigente en materia de residuos. La empresa contaba con los correspondientes certificados como instalación potencialmente contaminadora de la atmósfera de fecha 28 de diciembre de 1999, y de una autorización de vertido a colector emitida por el Consorcio de Aguas Bilbao-Bizkaia.

La Dirección de Calidad Ambiental con fecha 2 de junio de 2006 solicita informe a diversos órganos con intervención en el procedimiento en orden a que

men organoaren bidez proiektua jendaurrean jartzeko izapidetzea adosteari dagokionez. Zehazki Etxebarriko Udalari, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari kontsultatu zien.

2006ko azaroaren 2an eta 2007ko maiatzaren 14an, ingurumen organoak agiri osagarriak txertatzeko eskatu zion sustatzaileari, eta espedientea 2007ko uztailaren 3an osatu zen.

Aurkeztutako agiriak nahikoa zirela egiaztatu ondoren, Ingurumen sailburuordeak 2007ko urriaren 9an emandako ebazpenaren bidez, jendaurrean jarri zen 30 egun balioduneko epean, Arcelor Packaging España SL enpresak sustatutako proiektua, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian nahiz Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2007ko azaroaren 5ean. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko bi egunkaritan argitaratu zen 2007ko azaroaren 11n, eta ondoko auzokide bakoitzari jakinarazpena bidali zitzaion.

Jendaurrean jartzeko izapidea amaitu ondoren, alegazio bat dagoela egiaztatu da zarata eta dardarengatik kutsadura akustikoari buruz (batik bat gaueko ordutegian), eta kea eta usain txarrak direla-eta ingurumenaren kutsadurari buruz. Organo honek horri buruz egin dituen gogoetak I. eranskinean jaso dira.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoa betez, 2007ko abenduaren 20an Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak txostenak eskatu zizkien Etxebarriko Udalari, Osasun Sailari eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari, espedientean ageri den emaitza jasoz.

2008ko urtarrilaren 21ean, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa betez, espediente osoa Arcelor Packaging España SL enpresaren esku utzi zen, eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak egindako ebazpen-proposamena gehitu zen. 2008ko otsailaren 4an sustatzailearen komunikazioa jaso zen, enpresaren izen soziala aldatu dela jakinarazteko. Aurrerantzean Arcelormittal Packaging España SL izena du, eta horretarako aldaketa horren eskrituren kopia bat erantsi zuen. Era berean, oharrak egin zituen gai hauei buruz: UTM koordenatuak, hondakinak sortzea eta uretarako isurketak neurtzeko parametroak.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da atmos-

por el órgano ambiental se acuerde el trámite de información pública del proyecto, en concreto, se realiza consulta al Ayuntamiento de Etxebarri, al Consorcio de Aguas Bilbao-Bizkaia y al Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco.

Con fechas 2 de noviembre de 2006 y 14 de mayo de 2007 el órgano ambiental requirió al promotor que incorporara documentación adicional, complementándose el expediente el 3 de julio de 2007.

Una vez constatada la suficiencia de la documentación aportada, por resolución de 9 de octubre de 2007, del Viceconsejero de Medio Ambiente, se acuerda someter a información pública, por un periodo de 30 días hábiles, el proyecto promovido por Arcelor Packaging España, S.L., en orden a la presentación de cuantas alegaciones se estimasen oportunas, procediéndose a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco y en el Boletín Oficial de Bizkaia, con fecha de 5 de noviembre de 2007. Igualmente se procede al anuncio pertinente en dos periódicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco con fecha de 11 de noviembre de 2007 y a efectuar la oportuna notificación personal a los vecinos colindantes.

Una vez culminado el trámite de información pública, se constata que se ha presentado un escrito de alegaciones en relación con la contaminación acústica por ruidos y vibraciones, sobre todo en horario nocturno, y la contaminación ambiental por emisiones de humos y malos olores, recogiéndose en el anexo I las consideraciones de este órgano al respecto.

En aplicación de lo dispuesto en los artículos 17 y 18 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, la Dirección de Calidad Ambiental solicita el 20 de diciembre de 2007 informe al Ayuntamiento de Etxebarri, al Departamento de Sanidad y al Consorcio de Aguas Bilbao-Bizkaia, con el resultado que obra en el expediente.

Con fecha 21 de enero de 2008, y en aplicación del artículo 20 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación, el conjunto del expediente es puesto a disposición de Arcelor Packaging España, S.L. incorporando la propuesta de resolución elaborada por el Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio. El 4 de febrero de 2008 se recibe comunicación del promotor en el que comunica que se ha producido un cambio de razón social de la empresa que ha pasado a denominarse Arcelormittal Packaging España, S.L. y adjunta a tal efecto copia de las escrituras de la citada modificación. Asimismo, formula observaciones respecto a diferentes cuestiones como coordenadas UTM, generación de residuos y parámetros de medición en las emisiones a las aguas.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 1 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, constituye el obje-

feraren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea; eta hori lortzeko, ingurumen osoaren babes-maila altua helburutzat harturik, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatu eta burutzeko Erregelamendua onartzen duen apirilaren 20ko 509/2007 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoa betez, baimen honetan sartzen dira ekoizpen-elementu eta lerro guztiak; 16/2002 Legearen 1. eranskinean aipatzen ez diren arren, lege hori aplikatu beharreko esparruko jardueren instalazioetan gauzatzen direnak eta jarduera horrekin zerikusia dutenak.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 9. artikuluak ezartzen duena betez, ingurumeneko baimen bateratua behar dute 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. 11. artikuluaren arabera, baimen honen oinarrizko helburua baldintzak ezartzea da, araua, berau aplika daitekeen instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena emateko parte hartuko duten Herri Administrazio desberdinen artean koordinatuta izango den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren. Era berean, indarrean dagoen araudiaren araberako ingurumeneko administrazio-baimen guztiak egintza administratibo bakar batean bildu nahi dira. Arcelormittal Packaging España SL enpresak aurkeztutako proiektuaren kasuan, baimen hauek guztiak behar ditu: hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuen sortzaileak behar dituen baimenak; saneamenduko sare orokorrera isurketak egiteko baimena; ingurumen izaerako beste zehaztapenen artean, atmosferaren kutsadurari dagozkion baimenak eta lurzoruaren kutsadura prebenitu eta hari aurre hartzeari dagozkionak. Espedientean parte hartzen dutela frogatzeko, beste administrazio eta erakunde eskudunek egindako txostenak aurkeztuko dituzte.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozedurak Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuei buruzko azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuak aurreikusten duen jarduera sailkatuetarako udal-baimenaren prozedura ordezkatzen du; ez du ordezkatzen, ordea, udal agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena. Ondorio horietarako, ingurumeneko baimen bateratua udal-agintarientzat loteslea izango da, baldin eta lizentzia ukatzeko bada edota neurri zuzentzaileak

to de la misma evitar o, cuando ello no sea posible, reducir y controlar la contaminación de la atmósfera, del agua y del suelo, mediante el establecimiento de un sistema de prevención y control integrado de la contaminación, con el fin de alcanzar una elevada protección del medio ambiente en su conjunto.

En consonancia con lo dispuesto en el artículo 3 del Real Decreto 509/2007, de 20 de abril, por el que se aprueba el Reglamento para el desarrollo y ejecución de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de prevención y control integrados de la contaminación, se integran en la presente autorización todos los elementos y líneas de producción que aún sin estar enumerados en el anexo 1 de la Ley 16/2002, se desarrollen en el lugar del emplazamiento de las instalaciones cuya actividad motivó su inclusión en el ámbito de aplicación de dicha Ley, y guarden relación técnica con dicha actividad.

En aplicación de lo dispuesto en el artículo 9 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, se somete a autorización ambiental integrada la construcción, montaje, explotación o traslado, así como la modificación sustancial, de las instalaciones en las que se desarrollen alguna de las actividades incluidas en el anejo 1. La presente autorización mantiene como finalidad básica, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 11, la fijación de todas aquellas condiciones que garanticen el cumplimiento del objeto de la norma por parte de las instalaciones incluidas en su ámbito de aplicación, a través de un procedimiento que asegure la coordinación de las distintas Administraciones Públicas que deben intervenir en la concesión de dicha autorización para agilizar trámites y reducir las cargas administrativas de los particulares, a la par que viene a integrar en un solo acto de intervención administrativa las autorizaciones ambientales previstas en la legislación en vigor. En el caso del proyecto presentado por Arcelormittal Packaging España, S.L. tales autorizaciones se circunscriben a la de productor de residuos peligrosos y no peligrosos, vertidos a la red general de saneamiento y, entre otras determinaciones de carácter ambiental, las referidas a la materia de contaminación atmosférica, y en materia de prevención y corrección de la contaminación del suelo, constatando la participación en el expediente a través de la emisión de los preceptivos informes, de otras administraciones y organismos competentes.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 29 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, el procedimiento para el otorgamiento de autorización ambiental integrada sustituye al procedimiento para el otorgamiento de la licencia municipal de actividades clasificadas prevista en el Decreto 2414/1961, de 30 de noviembre, sobre Actividades Molestas, Insalubres, Nocivas y Peligrosas, salvo en lo referente a la resolución definitiva de la autoridad municipal. A estos efectos la autorización ambiental integrada, será, en su caso, vinculante para la autoridad municipal cuando implique

ezartzeko bada; baita aipatu arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen-alderdiei buruzko aipamena egiten bada ere. 29. artikulu horretan aipatzen denez, goiko guztiak ez ditu kaltetuko autonomia-erkidego bakoitzean jarduera sailkatuei aplikatzekoak diren gainerako arauak. Transkribatutako aginduak aplikatuz, Arcelormittal Packaging España SL enpresari dagokion ingurumeneko baimen bateratuaren prozedurak barne hartu ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako izapideak; horiez gain, espedientean sartu dira Etxebarriko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren txostenak.

Azkenik, instalazioak gehienez isur ditzakeen gai kutsagarrien muga-balioak eta ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko ustiapenerako ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazte aldera, ebazpen hau egiterakoan kontuan izan dira teknika onenen erabilera eta aplika dakiokeen alorreko legerian ezarritako baldintzak. Bereziki Europako Batzordearen 2000ko urriko Burdinaren Metalurgiako BREF agiriaren edukia (burdinaren metalurgiako industriako teknika erabilgarri onenen erreferentziako agiria) hartu da kontuan.

Espedienteko txostenak eta aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, horiekin lotuta txostena erantsi da I. eranskinean, eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak ebazpen-proposamena egin eta Arcelormittal Packaging España SL enpresak sustatutako proiektuak bete beharreko baldintzak ezarri ziren.

Goian adierazitako izapideak amaitu dira, eta uztailaren 1eko 16/2002 Legearen, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzkoaren 20. artikuluan jasotzen den entzunaldi-izapidea bete da. Ildo horretan, kontuan hartu behar da organo honi atxikitako zerbitzu teknikoek sustatzaileak izapidetze honetan egindako oharrak aztertu dituztela.

Organo hau da ingurumeneko baimen bateratu hau emateko eskuduna, aipatutako legearen 13. artikuluan eta urriaren 25eko 340/2005 Dekretuaren, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duenaren 9. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Ondorengo araudia ikusi da: Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak 2008ko urtarrilaren 21ean emandako ebazpen-proposamena; otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, Euskal Herriko Ingurume-

la denegación de licencias o la imposición de medidas correctoras, así como en lo referente a aspectos medioambientales recogidos en el artículo 22 de la mencionada norma. Afirma el citado artículo 29 que lo anteriormente dispuesto se entiende sin perjuicio de las normas autonómicas sobre actividades clasificadas que en su caso fueran aplicables. En aplicación de las prescripciones transcritas, el procedimiento de autorización ambiental integrada referido a Arcelormittal Packaging España, S.L. ha incluido el conjunto de trámites previstos al efecto en la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, incorporándose, con el resultado que obra en el expediente, los informes del Ayuntamiento de Etxebarri y del Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco.

Por último, en orden a determinar los valores límites de emisión de las sustancias contaminantes que puedan ser emitidas por la instalación, así como otras condiciones para la explotación de la misma a fin de garantizar una elevada protección del medio ambiente en su conjunto, en la formulación de la presente Resolución se ha tenido en cuenta tanto el uso de las mejores técnicas disponibles como las medidas y condiciones establecidas por la legislación sectorial aplicable. En particular se ha considerado el contenido del documento BREF para la industria de metalurgia férrea (Documento de Referencia de las Mejores Técnicas Disponibles en la industria de metalurgia férrea), de octubre de 2000, de la Comisión Europea.

Una vez analizados los informes obrantes en el expediente y las alegaciones formuladas, en relación con las cuales se adjunta informe en el anexo, el Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio elaboró propuesta de resolución, a la que se incorporaron las condiciones aplicables al proyecto promovido por Arcelormittal Packaging España, S.L.

Culminadas, de acuerdo con lo expuesto, las tramitaciones arriba referidas, se ha cumplido el trámite de audiencia contemplado en el artículo 20 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación. En este sentido, debe tenerse en cuenta que por los servicios técnicos adscritos a este órgano se ha procedido al análisis de las consideraciones realizadas por el promotor en este trámite.

Considerando la competencia de este órgano para la concesión de la presente autorización ambiental integrada de conformidad con lo previsto en el artículo 13 de la mencionada norma y el artículo 9 del Decreto 340/2005, de 25 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio.

Vistos la propuesta de resolución de 21 de enero de 2008 elaborada por el Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del

na Babesteari buruzkoa; 16/2002 Legea, uztailaren 1ekoa, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzkoa; Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazioari buruzko ekainaren 28ko 1302/1986 Legegintzako Errege Dekretua, maiatzaren 8ko 6/2001 Legeak aldatu zuena; irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretua, Legea burutzeko araudia onartzen duena; urriaren 25eko 340/2005 Dekretua, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duena; 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, eta aplikatzeko den gainerako araudia, hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Helbide soziala Gozón-eko (Asturias) udalerriko Residencia La Granda kalean duen eta IFK: B - 82163197 duen Arcelormittal Packaging España SL enpresari Ingurumeneko Baimen Bateratua ematea, Etxebarriko udalerrian burdinaren eta altzairuaren oinarrizko produktuak fabrikatzeko jardueRarako, eta Ebazpen honen bigarren atalean zehaztutako baldintzak jarraituko ditu.

Jarduera Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. eranskineko 2.3.c) «Burdin metalak eraldatzeko instalazioak. Orduan 2 tona altzairu gordinetik gora tratatzeko ahalmena duen metal urtua babesteko geruzak aplikatzea», eta 2.6 «Metal eta gai plastikoen gainazalak prozedura elektrolitiko edo kimiko bidez tratatzeko instalazioak, tratamendurako erabilitako kubeten edo lerro osoen bolumena 30 m^3-tik gorakoa denean» kategorietan sartuta dago.

Arcelormittal Packaging España SL enpresa Etxebarriko (Bizkaia) udalerriko Egetiaga Uribarri kaleko 34. zenbakian dago. Lursailaren azalera, guztira, 280.000 m^2-koa da.

Jarduera burdinaren eta altzairuaren oinarrizko produktuak fabrikatzeko da: latorria, txapa kromatua eta galbanizatua, berotan ijeztutako altzairu-bobina erabiliz. Urtero 325.000 tona latorri eta txapa kromatu eta 180.000 tona galbanizatu ekoizteko gaitasuna du instalazioak.

Latorria eta txapa kromatua fabrikatzeko prozesu hauek burutuko dira: desugertzea, hotzean ijeztea, tratamendu termikoa, tenplatzeko eta mehartze bikoitzeko trena, prestatze-lerroa eta eztainuzketa elektrolitikoak.

Desugerketaren helburua beroan ijezteko prozesuan sortutako oxido-geruza ezabatzea da. Horretarako,

Medio Ambiente del País Vasco, la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación, el Real Decreto Legislativo 1302/1986, de 28 de junio, de Evaluación de Impacto Ambiental, modificado por la Ley 6/2001, de 8 de mayo, por la que se modifica el anterior, el Real Decreto 1131/1988, de 30 de septiembre, por el que se aprueba el Reglamento para su ejecución, el Decreto 340/2005, de 25 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común y demás normativa de aplicación,

RESUELVO:

Primero.– Conceder a la empresa Arcelormittal Packaging España, S.L., con domicilio social en c/ Residencia La Granda, del término municipal de Gozón (Asturias) y CIF: B - 82163197, Autorización Ambiental Integrada para la actividad de fabricación de productos básicos del hierro y del acero, en el término municipal de Etxebarri, con las condiciones establecidas en el apartado Segundo de esta Resolución.

La actividad se encuentra incluida en las categorías 2.3.c) «Instalaciones para la transformación de metales ferrosos. Aplicación de capas de protección de metal fundido con una capacidad de tratamiento de más de 2 toneladas de acero bruto por hora» y 2.6 «Instalaciones para el tratamiento de superficie de metales y materiales plásticos por procedimiento electrolítico o químico, cuando el volumen de las cubetas o de las líneas completas destinadas al tratamiento empleadas sea superior a 30 m^3» del anexo 1 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación.

La empresa Arcelormittal Packaging España, S.L., se ubica en la calle Egetiaga Uribarri n.º 34 en el Término Municipal de Etxebarri (Bizkaia). La dimensión general del terreno es de 280.000 m^2.

La actividad se centra en la fabricación de productos básicos del hierro y del acero: hojalata, chapa cromada y galvanizado a partir de bobina de acero laminada en caliente. La capacidad de producción actual de la planta es de 325.000 toneladas/año de hojalata y chapa cromada y 180.000 toneladas/año de galvanizado.

Para la fabricación de la hojalata y chapa cromada se llevan a cabo los siguientes procesos: decapado, laminación en frío, tratamiento térmico, tren de temple y doble reducción, línea de preparación y estañados electrolíticos.

El decapado tiene por objeto eliminar la capa de óxido producida durante el proceso de laminación

beroan ijeztean sortutako burdin oxidoak azido klorhidrikotan disolbatzen dira.

Hotzean ijeztean produktuaren lodieraren % 85eko mehartze bat burutzen da. Laguntzako bi zilindro eta lanerako beste bi dituzten lauko tren itzulgarrietan egiten da.

Altzairua biguntzeko eta hotzeko erredukzioaren ondoren harikortasuna lehengoratzeko, beharrezkoa da birkristaltzea, eta hori behar den ale-egitura sortzeko tratamendu termiko baten bidez egiten da, suberaketaren bidez, alegia (kanpaian eta jarraikia).

Banda suberatu ondoren, oso bigun geratzen da, eta bi kutxako tren batean lubrifikaziorik gabeko ijezte-tratamendu arin bat ematen zaio herdoilkontrako bat emateko. Tenplatzearekin, bandaren lodiera % 0,5 eta 2 artean mehartzea lortzen da. Gainera, ijezketa gauzatzeko, mehartze bikoitzeko prozesu bat burutzen da, emultsio oliotsua aplikatuz, eta % 20 eta 40 arteko erredukzioa lortzen da.

Latorrirako bi lerro daude latorria bobinetan edo paketetan fabrikatzeko, eta berezitasun gisa, lerro batek txapa kromatua ere (TFS) fabrika dezake. Babesteko geruza jaso aurretik, banda garbiketa elektrolitikoko unitate batetik eta desugerketa elektrolitikoko unitate batetik igarotzen da, eta olioak eta oxidoak ezabatzen dira. Jarraian, banda eztainuzketa elektrolitikoko unitatetik igarotzen da. Zenbait kubeta izan ditzake, edo kromo-zelula bat, eztainu- edo kromogeruza hartzeko.

Galbanizatua fabrikatzeko, desugertzeko prozesua eta hotzean ijezteko (latorriaren prozesuaren berdinberdina) eta galbanizatzeko prozesuak burutzen dira. Azken prozesu horretan, banda ijeztu ondoren, banda garbitzeko prozesua gauzatzen da beroketa bidez, birkristaltzeko prozesua (750 ºC) erredukzio-labearen bidez, hozte geldi bat (650 ºC) mantentze-labearen bidez, hozte azkarra (450 ºC) hozte azkarreko labearen bidez, eta altzairua babesteko metalaz estaltzea. Kubetatik irtetean, txapak zink-soberakina arrastatzen du, eta hori ezabatu egin behar da, estaldura egokia izan dadin. Azkenik, banda hoztu eta bobinatu egiten da.

Ur beltz eta industria-uretatik bereizitako sarea dago, kolektorera doana, eta euri-uren sarea, ibaira doana.

Proiektuak teknika erabilgarri egokienak (TEO) izan daitezkeen ondorengo neurriak barneratzen ditu:

a) Hotzean ijeztea:

– Ur-errezelak eta ondoren hondakin-uren tratamendu bat, solidoak bereizi eta biltzen dituena, horren burdin edukia berrerabiltzeko.

en caliente. Para ello, los óxidos de hierro formados en la laminación en caliente se disuelven en el ácido clorhídrico.

En la laminación en frío se lleva a cabo una reducción del espesor del producto del orden de 85%. Se realiza en trenes cuarto reversibles, con dos cilindros de apoyo y dos de trabajo.

A fin de ablandar el acero y restaurar su ductilidad tras la reducción en frío, se hace necesaria una recristalización, que se realiza mediante un tratamiento térmico para producir la estructura de grano requerida, el recocido (en campana y continuo).

Una vez recocida la banda queda muy blanda y se le da un ligero tratamiento de laminación en un tren de dos cajas sin lubricación en el que se aplica un antioxidante. Con el temple se consigue una reducción del espesor de la banda de entre 0,5 y 2%. Además, se lleva a cabo un proceso de doble reducción donde se realiza la laminación, con aplicación de emulsión aceitosa, alcanzándose reducciones de 20 a 40%.

Se dispone de dos líneas de hojalata preparadas para fabricar indistintamente hojalata en bobinas o paquetes, con la particularidad que una línea puede fabricar también chapa cromada (TFS). La banda pasa antes de recibir la capa de protección, por una unidad de limpieza electrolítica y una unidad de decapado electrolítico que eliminan los aceites y óxidos. A continuación la banda pasa por la unidad de estañado electrolítico, compuesta de varias cubas, o por una célula de cromo para recibir la capa de estaño o de cromo.

Para la fabricación del galvanizado, se llevan a cabo los procesos de decapado y laminación en frío (idéntico al proceso de hojalata) y galvanizado. En este último proceso, una vez laminada la banda, se realiza el proceso de limpieza de la banda mediante calentamiento, el proceso de recristalización (750 ºC) a través del horno de reducción, un enfriamiento lento (650 ºC) a través del horno de mantenimiento, el enfriamiento rápido (450 ºC) a través del horno de enfriamiento rápido y el recubrimiento del acero por el metal de protección. Al abandonar la cuba, la chapa arrastra un exceso de zinc que es preciso eliminar para que el revestimiento sea el deseado. Por último, se enfría la banda y se bobina.

Se dispone de red separada de aguas fecales e industriales con destino al colector y red de aguas pluviales con destino al río.

El proyecto incorpora, entre otras las siguientes medidas que pueden considerarse Mejores Técnicas Disponibles (MTDs):

a) Laminación en frío:

– Cortinas de agua seguidas de un tratamiento de las aguas residuales por el que se separan y se recogen los sólidos para reutilizar su contenido en hierro.

– Desugerketa-fasean karga-murrizketa bat, hauen bidez: aurretiko desugerketa mekanikoa hautsa arrastatzen duen ur-errezelaren bidez prozesadorean; eta azido-andelen aurretik ur-errezelak dituen desugertzeko makina bat, unitate itxi batean hautsa arrastatzen duena, erauzte-sistema eta mahuka-iragazki bidez.

– Azidoak berotzea lurrun-zipriztingailu bidez.

– Ur-jauziko garbiketa-sistema, gainezkaldiak berrerabilita.

– Emultsioaren kalitatea etengabe zaintzea.

– Emultsio-zirkuituen funtzionamendu-bizia luzatzea emultsioa garbituz eta berrerabiliz.

– Biltzeko sistemak, erauzitako airea laino ezabatze bidez tratatuta.

– NOx baxuko erregailuak, energia-berreskuratzailea dutenak.

b) Galbanizatu jarraikia:

– NOx isurketa baxuko erregailuak.

– Disoluzio pasibatua garbitu eta berrerabiltzea.

– Hozteko ur-sistema independenteak zirkuitu itxian.

Bigarrena.– Arcelormittal Packaging España SL enpresak Etxebarriko (Bizkaia) udalerrian burdinaren eta altzairuaren oinarrizko produktuak fabrikatzeko jardueraren ustiapenerako ondorengo baldintzak eta eskakizunak jartzea:

A) Administrazioarekiko harremanez arduratuko den pertsonaren gainean Ingurumen Sailburuordetzari eman dizkion datuetan aldaketarik balego, Arcelormittal Packaging España SL enpresak aldaketa horien berri emango du.

B) Neurri babesle eta zuzentzaileak sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusi bezala burutuko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz:

B.1.– Instalazioaren funtzionamendurako baldintza orokorrak.

B.1.1.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

B.1.1.1.– Baldintza orokorrak.

Arcelormittal Packaging España SL enpresaren instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isurketek ez dituzte Ebazpen honetan ezarritako muga-balioak gainditukо.

Prozesuan zehar atmosferara isurtzen den gai kutsatzaile oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanpora bideratuko da, behar denean, gai kutsatzaileen

– Reducción de la carga sobre la fase del decapado por medio de un descascarillado mecánico previo con cortina de agua que arrastra el polvo, en el procesador, y una descascarilladota previa a los tanques de ácido con cortinas de agua que arrastran el polvo en una unidad cerrada, con un sistema de extracción y filtros manga.

– Calentamiento de los ácidos por barboteadores de vapor.

– Sistemas de lavado en cascada con reutilización de los reboses.

– Vigilancia continua de la calidad de la emulsión.

– Alargamiento de la vida del funcionamiento de los circuitos de emulsión mediante limpieza y reutilización de la emulsión.

– Sistemas de captación con tratamiento del aire extraído mediante eliminación de nieblas.

– Quemadores de bajo NOx, con recuperador de energía.

b) Galvanizado en continuo:

– Quemadores bajos en emisiones de NOX.

– Limpieza y reutilización de la solución pasivaza.

– Sistemas de agua independientes para la refrigeración funcionando en circuito cerrado.

Segundo.– Imponer las siguientes condiciones y requisitos para la explotación de la actividad de fabricación de productos básicos del hierro y del acero, promovida por Arcelormittal Packaging España, S.L., en el término municipal de Etxebarri (Bizkaia):

A) Arcelormittal Packaging España, S.L. remitirá a la Viceconsejería de Medio Ambiente cualquier modificación de los datos facilitados respecto al responsable de las relaciones con la Administración.

B) Las medidas protectoras y correctoras se ejecutarán de acuerdo con lo previsto en la documentación presentada por el promotor ante esta Viceconsejería de Medio Ambiente, de acuerdo a la normativa vigente y con lo establecido en los apartados siguientes:

B.1.– Condiciones generales para el funcionamiento de la instalación.

B.1.1.– Condiciones para la protección de la calidad del aire.

B.1.1.1.– Condiciones generales.

La planta de Arcelormittal Packaging España, S.L. se explotará de modo que, en las emisiones a la atmósfera, no se superen los valores límite de emisión establecidos en esta Resolución.

Toda emisión de contaminantes a la atmósfera generada en el proceso deberá ser captada y evacuada al exterior por medio de conductos apropiados previo

ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren.

Neurriak hartuko dira ustekabean gai kutsatzailerik ez isurtzeko, eta isurtzen direnak giza osasunerako nahiz gizartearen segurtasunerako arriskutsuak izan ez daitezen. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatu eta mantenduko dira, efluenteen tenperatura- eta konposizio-aldakuntzei modu eraginkorrean aurre egiteko. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabiltzan edo geldirik dauden aldiak.

B.1.1.2.– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Arcelormittal Packaging España SL enpresaren instalazioak ondorengo fokuak ditu, atmosfera babestearen arloan indarrean dagoen araudiaren arabera katalogatuta:

paso, en su caso, por un sistema de depuración de gases diseñado conforme a las características de dichas emisiones.

Se tomarán las disposiciones apropiadas para reducir la probabilidad de emisiones accidentales y para que los efluentes correspondientes no presenten peligro para la salud humana y seguridad pública. Las instalaciones de tratamiento de los efluentes gaseosos deberán ser explotadas y mantenidas de forma que hagan frente eficazmente a las variaciones debidas a la temperatura y composición de los efluentes. Asimismo se deberán reducir al mínimo la duración de los periodos de disfuncionamiento e indisponibilidad.

B.1.1.2.– Identificación de los focos. Catalogación.

La instalación de Arcelormittal Packaging España, S.L. cuenta con los siguientes focos, catalogados de acuerdo con la normativa vigente en materia de protección de la atmósfera:

Foku zk.	Erregistro-liburuan duen izena	Isurtze-fokuaren izena	Garaiera (m)	Diametroa (m)	Katalogazioa	UTM koordenatuak	
					Taldea	X	Y
1	48003347-01	Desugerketa	22,00	0,9	C	508.566	4.788.000
2	48003347-02	2. trena	18,5	1,08	C	508.342	4.787.967
3	48003347-03	4. trena	17,79	1,16	C	508.446	4.787.960
4	48003347-04	5. trena	18,70	0,99	C	508.166	4.788.999
5	48003347-05	Deskoipeztatzea	18,84	0,67	C	508.417	4.787.987
6	48003347-06	Suberaketa jarraikia garbiketa	24,50	0,71	C	508.350	4.788.050
7	48003347-07	Suberaketa jarraikia errekuntza	39,00	1,33	C	508.312	4.788.057
8	48003347-08	6. trena	20,00	1,78	C	508.189	4.787.888
9	48003347-09	EE1 garbiketa	20,15	1,01	C	508.305	4.787.947
10	48003347-10	EE1 kromatzea	20,15	0,49	C	508.366	4.787.949
11	48003347-11	EE2 garbiketa	20,75	0,86	C	508.329	4.787.917
12	48003347-12	EE2 Gasak ikuztea tratamendu kimikoa	16,5	0,40	C	508.364	4.787.915
13	48003347-13	Lurrun-galdara	17,50	1,53	B	508.797	4.787.977
14	48003347-14	2. lurrun-galdara	18,00	1,53	B	508.790	4.787.969
15	48003347-15	Galbanizatua	18,00	0,51	C	508.285	4.787.856
16	48003347-16	Birgaldatzeko labea	18,80	0,31	B	508.296	4.787.889

N.º foco	*Denominación en libro de registro*	*Denominación foco de emisión*	*Altura (m)*	*Diámetro (m)*	*Catalogación*	*Coordenadas UTM*	
					Grupo	*X*	*Y*
1	*48003347-01*	*Decapado*	*22,00*	*0,9*	*C*	*508.566*	*4.788.000*
2	*48003347-02*	*Tren n.º 2*	*18,5*	*1,08*	*C*	*508.342*	*4.787.967*
3	*48003347-03*	*Tren n.º 4*	*17,79*	*1,16*	*C*	*508.446*	*4.787.960*
4	*48003347-04*	*Tren n.º 5*	*18,70*	*0,99*	*C*	*508.166*	*4.788.999*

N.º foco	*Denominación en libro de registro*	*Denominación foco de emisión*	*Altura (m)*	*Diámetro (m)*	*Catalogación*	*Coordenadas UTM*	
					Grupo	*X*	*Y*
5	*48003347-05*	*Desengrasado*	*18,84*	*0,67*	*C*	*508.417*	*4.787.987*
6	*48003347-06*	*Recocido continuo limpieza*	*24,50*	*0,71*	*C*	*508.350*	*4.788.050*
7	*48003347-07*	*Recocido continuo combustión*	*39,00*	*1,33*	*C*	*508.312*	*4.788.057*
8	*48003347-08*	*Tren n.º 6*	*20,00*	*1,78*	*C*	*508.189*	*4.787.888*
9	*48003347-09*	*EE1 limpieza*	*20,15*	*1,01*	*C*	*508.305*	*4.787.947*
10	*48003347-10*	*EE1 cromado*	*20,15*	*0,49*	*C*	*508.366*	*4.787.949*
11	*48003347-11*	*EE2 limpieza*	*20,75*	*0,86*	*C*	*508.329*	*4.787.917*
12	*48003347-12*	*EE2 Lavado de gases tratamiento químico*	*16,5*	*0,40*	*C*	*508.364*	*4.787.915*
13	*48003347-13*	*Caldera vapor n.º 1*	*17,50*	*1,53*	*B*	*508.797*	*4.787.977*
14	*48003347-14*	*Caldera vapor n.º 2*	*18,00*	*1,53*	*B*	*508.790*	*4.787.969*
15	*48003347-15*	*Galvanizado*	*18,00*	*0,51*	*C*	*508.285*	*4.787.856*
16	*48003347-16*	*Horno de refusión*	*18,80*	*0,31*	*B*	*508.296*	*4.787.889*

B.1.1.3.– Isurtzeko muga-balioak.

Instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isurketek ez dituzte isurtzeko muga-balio hauek gainditukо:

B.1.1.3.– Valores límite de emisión.

La planta se explotará de modo que, en las emisiones a la atmósfera, no se superen los siguientes valores límite de emisión:

Fokua		Substantziak	Isurtzeko muga-balioak
1	Desugerketa	HCl	30 mg/Nm^3
		Partikulak	30 mg/Nm^3
2	2. trena	Partikulak	30 mg/Nm^3
3	4. trena	Partikulak	30 mg/Nm^3
4	5. trena	Partikulak	30 mg/Nm^3
5	Deskoipeztatzea	Partikulak	30 mg/Nm^3
6	Suberaketa jarraikia garbiketa	Partikulak	30 mg/Nm^3
7	Suberaketa jarraikia errekuntza	CO	500 ppm
		NOx	400 mg/Nm^3 (% 3 O2)
8	6. trena	Partikulak	30 mg/Nm^3
9	EE1 garbiketa	Partikulak	30 mg/Nm^3
		SOx	10 mg/Nm^3
10	EE1 Kromatzea eta tratamendu kimikoa	Partikulak	30 mg/Nm^3
		HF	5 mg/Nm^3
		Cr guztira	0,2 mg/Nm^3
11	EE2 garbiketa	Partikulak	30 mg/Nm^3
		SOx	10 mg/Nm^3
12	EE2 tratamendu kimikoa	Partikulak	30 mg/Nm^3
		Cr guztira	0,2 mg/Nm^3
13	1. lurrun-galdara	CO	500 ppm
		NOx	300 ppm

Fokua		Substantziak	Isurtzeko muga-balioak
14	2. lurrun-galdara	CO	500 ppm
		NOx	300 ppm
15	Galbanizatua	CO	500 ppm
		Partikulak	30 mg/Nm^3
		NOx	300 ppm
16	Birgaldatzeko labea	CO	500 ppm
		Partikulak	30 mg/Nm^3
		NOx	300 ppm

Foco		*Sustancias*	*Valores Límite Emisión*
11	*Decapado*	*HCl*	*30 mg/Nm^3*
		Partículas	*30 mg/Nm^3*
22	*Tren n.º 2*	*Partículas*	*30 mg/Nm^3*
33	*Tren n.º 4*	*Partículas*	*30 mg/Nm^3*
44	*Tren n.º 5*	*Partículas*	*30 mg/Nm^3*
55	*Desengrasado*	*Partículas*	*30 mg/Nm^3*
66	*Recocido continuo limpieza*	*Partículas*	*30 mg/Nm^3*
77	*Recocido continuo combustión*	*CO*	*500 ppm*
		NOx	*400 mg/Nm^3 (3%O2)*
88	*Tren n.º 6*	*Partículas*	*30 mg/Nm^3*
9 99	*EE1 limpieza*	*Partículas*	*30 mg/Nm^3*
		SOx	*10 mg/Nm^3*
110	*EE1 cromado y tratamiento químico*	*Partículas*	*30 mg/Nm^3*
		HF	*5 mg/Nm^3*
		Cr total	*0,2 mg/Nm^3*
111	*EE2 limpieza*	*Partículas*	*30 mg/Nm^3*
		SOx	*10 mg/Nm^3*
112	*EE2 tratamiento químico*	*Partículas*	*30 mg/Nm^3*
		Cr total	*0,2 mg/Nm^3*
113	*Caldera vapor n.º 1*	*CO*	*500 ppm*
		NOx	*300 ppm*
114	*Caldera vapor n.º 2*	*CO*	*500 ppm*
		NOx	*300 ppm*
115	*Galvanizado*	*CO*	*500 ppm*
		Partículas	*30 mg/Nm^3*
		NOx	*300 ppm*
16	*Horno de refusión*	*CO*	*500 ppm*
		Partículas	*30 mg/Nm^3*
		NOx	*300 ppm*

Isurtzeko muga-balioak baldintza hauei buruzkoak dira: 273 K-eko tenperatura, 101,3 kPa-ko presioa eta gas lehorra.

Gehienez onar daitezkeen balioek ez dituzte isurketarako muga-balioak gaindituko, arauz egingo diren aldizkako ikuskaritzetan (ordubeteko hiru neurketa gutxienez) zortzi ordutan zehar neurtuta. Neurketa-tolerantzia gisa, kasu guztien % 25ean gainditu ahal izango da muga-balioa, % 40a gainditzen duen zenbatekoa baldin bada. Tolerantzia hori gainditu gero, neurketa-aldia astebetez luzatuko da, eta aldi honetako tolerantzia global gisa, kasuen % 6an gehienez onar daitezkeen mailak gainditzea onartuko da, % 25a gainditzen ez duen zenbatekoa denean. Tolerantzia horiek izanda ere, gai kutsatzaileak isurtzen dituen fokuaren eraginpeko zonaldean ezin izango dira inoiz higienikoki onar daitezkeen balioak gainditu.

B.1.1.4.– Gasak biltzeko eta husteko sistema.

